

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Hirugarren adineko pertsoneri zuzendutako enpresa gara. Astean zehar bakarrik sentitzen direnei eta taldean zerbait egin nahi dutenei, hain zuzen ere.

Gure merkatu mota merkatu masiboa da, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia baita. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrianak eta arazoak dituen.



Hirugarren adineko pertsoneri zuzenduta dago, lehen azaldu dugun bezala. Talde honetan 60-85 urte bitarteko pertsonak sartzen dira, gutxi gorabehera. Dena den, adin tarte horretik kanpo dauden kasuak ez dira baztergarriak izango. Hau da, gure enpresan aztertuko dira eta gure esku dauden zerbitzuak behar badituzte, ongietorriak izango dira gurera.

Gure kokapena kontutan hartuta, Gasteizen zein inguruneetan bizi diren pertsoneri eskeiniko diegu gure zerbitzua hurbiltasuna bermatzeko asmoz eta bezeroak etxetik ahalik eta gertuen egon daitezen.

Adin tarte honetako pertsonen ezaugarriak nabarmenenak hauek dira:

- Sedentarismoa: Lan-jarduera falta dela eta, adineko helduek sedentarismorako joera dute. Estatistikoki ikus daiteke adineko emakume helduek jarduera gehiago izaten dutela etxetik kanpo gazteak zirenean baino. Horrela, etapa bikaina da helduaroan seme-alaben hazkuntzagatik egin ezin izan zituzten gauza guztiak egiteko: ikastea, irtetea, bidaiatzea, etab.
- Zentzu gutxituak: Zentzumenen organoak, batez ere entzumena eta ikusmena, hondatu egiten dira, eta batzuetan lenteak edo audifonoak erabiltzen dira ondo ikusi edo entzun ahal izateko. Honek askotan isolamendua sortzen du, ez badazu ez entzuten ez ikusten, mundutik isolatuta geratzen zara.
- Harreman sozialak: Harreman sozialak ere aldatu egiten dira. Familia berean ere erantzukizun gutxiago ematen zaizkie eta, kasu batzuetan, inkontzienteki isolatzen dira. Honek, gainbehera psikologiko bat eragiten du, baita depresio arin bat ere nagusientzat.
- Garunaren gaitasuna gutxitzeko joera: Nerbio-sistemaren aldaketak desgaitasunaren faktore garrantzitsuak izan daitezke. Adinari lotutako neuronen eta dendriten kopuruan eta funtzio kognitiboan izandako aldaketak ez dira uniformeak, eta oroimena eta arreta dira gehien kaltetutako esfera kognitiboak.
- Denbora libre asko: Bestalde, erretiroak berekin ekar dezake diru-sarrera ekonomikoak murriztea eta, aldi berean, denbora libre nabarmen handitzea, eta hori modu egokian kudeatzen ikasi behar da.
- Behar afektiboa: Askotan, bakardade sentimendua dela eta, sozializatzeko eta beste pertsonekin denbora pasatzeko beharra daukate. Batzuetan familia ez dutelako edo beste batzuetan familia ez dielako arreta eskaintzen.
- Gorabehera afektiboak eukitzeko joera: Nahasmendu afektiboak, hala nola depresioa eta antsietatea, bizitzan zehar errepikatu ohi dira

biztanleria osoan, baina ohikoagoak dira zahartzaroan, bizitzako kontrako gertaeren arriskua areagotzen delako. Nahasmendu horien nagusitasuna zaintza-zentroetan bizi diren adineko pertsona ahulenen artean dezente handiagoa da. Antsietatea eta depresioa batera agertzen dira askotan. Gainera, depresio-egoerak nutrizio-egoera okerragoarekin lotzen dira, pertsona horiek janariarekiko interesa galtzen baitute.

Ezaugarri guzti hauek aztertuta, esan dezakegu agureen behar guzti-guztiak asetzeko elkartea dela gurea. Osasunaren alorrean, gaitz psikologikoak (aipatutako gorabehera psikologikoak, depresioa bezala) sahiesteko ekintzak egingo ditugu: paseoak, kirolak, eskulanak, pasadenborak... Ekintza hauek egin bitartean, denbora ona pasatuko dute, umore hobean egongo dira eta gaitz horiek sahiesteko ekintza ezinhobeak dira.

Halaber, haien denbora librea modu egokian pasatzeko ekintzak izango dira, egoera fisiko onean mantentzeko, behar duten arreta jasotzeko, lagun berriak egiteko, leku berriak ezagutzeko, kulturalki hezteko...

Horrela, haien behar guztiak asetzeko ekintzak antolatuko ditugu, haien ezaugarriekin bat datorrenak.